

9. Kostuen egitura:

Gure enpresaren kasuan, antolaketa edota kudeaketa hauek egitean, gastu desberdinak sortzen dira hilabetero. Hauek horrela sailkatzea pentsatu dugu; handienetik txikienera: monitoreen soldata (eta gizarte segurantzaz), patentea, maileguaren itzulketa, lokalaren alokairua (kontuan izan behar da, notarioa eta patentea hasieran egongo diren gastuak bakarrik direla, hau da, lehenengo aldiz ordaindutakoan ez dugula berriro ordaindu beharko, baina beste gastu batzuk berriz, hileroko egongo direla eta hauen barruan, kostu aldakorrak eta finkoak daudela). Horrela definituko genituzke horietako batzuk:



1) Lokalaren alokairua: Alokairuaren gastua, kostu finko bat izango da hilabete guztietan, baina lehenengo hilabetearen, hilabetearen kuota eta hurrengo hilabetea ordaintzen da. Ondorioz, lehenengo hilabetearen 1200€ ordainduko ditugula pentsatzen dugu

2) Maileguaren itzulketa: 10.000€-ko mailegu bat eskatzea nahiko beharrezkoa dela pentsatzen dugu; izan ere, hasieran ez dugu diru nahikorik izango proiektua burutzeko. 10.000€-koa eskatzen badugu, urteko %2,5ean eta 5 urtetan itzuli beharko badugu. Amaieran, 11.314€ ordaindu beharko dugu.

3) Argia, ura eta elektrizitatea: gastu aldakorrak izango dira, ondorioz, erabiltzen diren kantitatearen arabera, kostua aldatu egiten da. Baina, gutxi gora behera, 150€ ordainduko ditugula pentsatzen dugu, nahiz eta, neguan adibidez prezio hauek igo ahal diren (berogailuarengatik).

Gero egongo ez diren hasierako kostuak	
Merkataritza erregistroa	100-200€
Notarioa	300-500€
Patentea	850€
Kostu finkoak	
Alokairua	600€
BEZ-a	%21

Maileguen itzultzea	11.314€
Kostu aldakorrak	
Gizarte segurantzak	Soldaten %35.4
Lokaleko argia eta ura	75€
Elektrizitatea	75€
Langileen Soldata (3-4 izango ditugu hasieran)	1050€/pertsonako

* Kostu hauen gain, beste kostu batzuk ere sortzen dira (hotelak, garraioak, bertan antolatutako jarduerak etab), baina gastu hauek ez dira gure gastuak izango; izan ere, kostu guzti hauek, gure zerbitzua erabiltzen dutenak ordainduko dituzte (guk erreserbatu baino lehen)